

Enrike Galarza

NUPeko irakaslea

## Europa: moneta berria, arazo zaharrak

■ Lau urteko epea jarriko digute euro-parrooi soilik moneta bakarra erabiltzeko. Aurrikuspen baikorrenen arabera, 1998an izango da abiapuntua. 2002an, beraz, moneta batasunarako prest diren, hau da Maastrichteko irizpideak betetzen dituzten, herrien txanpon nazionalak desagertuko dira, desagertaraziko dituzte hobeto erranda. *Opting-out* (kanpoan geratzeko) delako aukera lortu zutelakotz, Danimarkak eta Britainia Handiak ez dute horretatik pasa behar, haien populazioneek edo ordezkari politikoei basterik ez badute erabakitzen.

Madrilen onartutako planak hiru ataletan gauzatzen du moneta batasuna. Lehenengo erabakia moneta batasunaren aldarrikapen ofiziala izanen da. Honen batera, batuko diren nazioen zerrenda iragarriko du Europako Kontseiluak, 1998ko martxorako, beranduenez. Madrileko Kontseiluan, Frantzia izanen dituzten hauteskundeak eman zituen argudiotzat Chiracek aldarrikapen hori

aurreratzeko (1997ko azaroa zen haren proposamena), baina Kontseiluko gehiengoaren ustez, nazio bakoitzaren egoera ekonomikoa epaitzeko (*Maastrichteko azterketa* aipatzen da) hobe zen 1997 urte osoko estatistikak edukitzea. Beraz, moneta batasunaren lehengo beheratze hilabeteetan euroa kudeatzeko Europako Banketxe Nagusia (EBN) eta Banketxe Nagusi Europarren Sistema (BNES) sortuko dira. Bertzenaz, nazioen barnean legediak aldatu edo sortu beharko dira, zeinek kontraktu guztien kontinuitate edo jarraitasuna bermatuko duten monetaren aldaketaren ostean. Lehenengo fasean eurorik ez delakotz, legediek diru-zenbakiak aldatzeko ahalmena truke tasa ofizialari (euroa eta txanpon nazionalaren artekoa) onartuko diote. Aldi berean edozein txanpongailu (publikorako salmenta zein aisialdirakoak) egokitu beharko dute, euro txanpon eta paperezko berriak izanen baitira handik eta hiru urtetan.

Bigarren etapa ondorengo hamabi hilabete baino lehenago hasiko da planaren arabera. Hala ere, 1999ko urtarrilaren lehen hasteko izaten den borondate politika nabarmendu zen Madrilen. Egun horretan, benetako eraldaketa hasiko da: euroa jaioko da, orduko euren balio berbera izanen duelarik, eta honen desagerpena ekarriko du; txanpon nazionalen artean, eta euroarekiko, truke tasa ofizialak mugatuko dira, finkoak gainerat; EBN eta BNESk Moneta Politika Bakarra aplikatuko dute (interes tasa berdina merkatu nazionalan). Baita ere, Zor Publiko nazionalen jaulkipenak, Banketxe Nagusien arteko ordainketak eta banketxe nazionalen arteko ordainketa handiak eurotan egingen dira. Nahiz ta eguneroko erosketa eta hainbat gastu (alokairua, letrak...) txanpon nazionalen kitatu, euro-salneurriak agertuko dira labeletan prezio nazionalen batera. Pixkanaka-pixkanaka enpresa handiek eta baita ere ertain eta txikiak kontu korronteak eurotan edukiko dituzte. Zergak eurotan ordaintzeko ere aukera izango da. Lehenengo hilabeteetan, ordainketen *masa kritikoa* lortzea izanen dute helburu agintari monetarioek. Izan ere, adituen ustez, euroak, edozein produktu bezala, merkatuen (hau da, egin-karien) onspena jaso behar du. Horregatik enpresa handiak eta finantz-sistema nazionalak aukeratu dituzte adituek euro-ordainketak bultzatzeko. Hiru urtetan zehar luzatuko da garrantzi handiko etapa hau.

Azkenean (2002-1-1-ean), hirugarren etapa hasiko da. Euroa izanen da, legez, erabili beharreko moneta bakarra Europako Batasunean. Banketxe Nagusi nazionalak txanpon eta paperezko euroak banatuko dituzte publikoaren artean txanpon eta paperezko nazionalen truk, eguneroko erosketa ta eralkipen guztiak soilik euroarekin egiteko. Ordurako, moneta batasun osoa izanen da... edo gutxienez hori sinetsi behar dugu Europako Batasunaren onerako.

### Sinesgarritasunaren afera

Sinesgarritasun hitza maiz entzuten da Bruselako eurokraten artean. Euroa eta txanpon nazionalen arteko aukerarik izanen denez (2002 arte), adituek ez dakite ziur *merkatuek* euroaren alde joko duten ala ez. Estatuetakoz jaulkipen eta Moneta Politikako eragiketarako gehi banketxearteko ordainketa handiak, ordainketa kopuru handia izan arren, ez dute berez euroa zabalduko. Zer egin inbertsore *markozale* edo *liberazaleekin*? Onartuko al diote euroari haien konfidantza, haien dirua? Madrilen, Kohlek Alemaniako zorra, bigarren etapan, markotan jaulkitzeko baimena eskatu zuen (alemanen % 77a moneta bakarraren aurka dago). Besteek ezetz erantzun zioten, kasu guztietan zorraren interesak eurotan ordainduko zirela gogoratu. Batzuk ziotenez eskaera hau *taktikoa* izan zen, zeren garrantzi handiagoa zuen beste proposamen alemanari, *Estabilitzazioarako edo Egonkortzerako Itunari*, askoz gehiago eutsi baitzion Kantzilerak. Proposamen honen gakoa zen Es-

tatuetakoz defizitaren kontrola gehitzea. Barne Produktu Gordinaren % 1eraino murriztea (% 3 beheko ertza bihurtuz) eta, alde polemikoagoa, Estatu gastazalei isunak jartzea. Itun horrek ezin zuela Maastrichteko baldintzak aldatu Kontseilu Lehendakariak beste oroitzen zien bitartean, 1992ko Europako Batasunaren Itunaren aldaketak ikertzeko lan-taldearen emaitzak onartu ziren bilera berezi batera dei eginez, 1996ko martxorako.

Kohl kantzilerra bilatzen ari dena, ia etsita, erraz uler dezakegu. Haren boto emailek ondo baitakite logika alemana: euroa moneta batzuen gehiketa izanen da, markoa horien artean. Mundu mailan, markoa da egungo txanpon indartsuena, dolarrarekin batera. Orduan, euroa markoa baino ahulagoa izanen da nahitaez. Logika honek beste txanponen indarra berreskuratzeko neurri ekonomikoak exigitzen ditu, sinesgarritasunaren izenean, moneta batasunak bizirik iraun dezan. Horretarako prestatu zituzten Maastrichteko irizpideak motz geratu dira alemanen irudikotz: eua markoa baino ahulago egon baita dibisa merkatuetan.

Beraz, Kohlen helburua da besteen txanponen indarra berreskuratzeko ahalik eta lasterren, eta, honetarako, ekonomiariek Gastu Publikoa murriztu behar dela diote. Hau da benetako arazoa, aurrekontuen murrizketak ekonomia errealarari (batez ere, jadanik gorriak ikusten dituztenei) kalte handia baitakarkio: monetaren indarrak gizakumeon ahulezia eta miseria ekartzen baditu, akabo Moneta Batasuna hasi baino lehen.

### Maastrichteko lau irizpide Moneta Batasunerako

Hiru nazio aukeratzen dira irizpideak mugatzeko (%tan). Inflazio txikiagoa duten hiru lehen nazioak izanen dira. Haien artean, batezbesteko inflazio eta epe luzerako interes tasa bat mugatuko dira. Lehenengo irizpidearen arabera, batezbesteko inflazio hori baino % 1,5 gehiago duten nazioek ezingo dute Batasunean sartu. Berdin gertatzen da epe luzerako interes-tasarekin, baina % 2 gehiago onartzen da bigarren irizpide honetako.

Hirugarren baldintza bikoitza da, Estatu sarrera eta eralkipenei (gastuei) baitagokie. Alde batean, urteko Administrazio Publikoko defizitak Barne Produktu Gordinaren % 3a baino txikiagoa izan behar du; bertetik Zor Publikoak BPGren % 60a baino txikiagoa.

Azken irizpidearen, txanpon nazionalak, batasun ulean, gutxienez bi urte kenbaluziorik gabe eraman beharko du, nazio horrek batasunean parte hartzeko.

Egun, Alemania eta Luxenburgoko dira irizpide guztiak betetzen dituzten bakarrak. Hiztegi eurokratarako hiru hitz konposatu berri agertu dira Madrilen: *ins*, irizpideak betetzen dituzten nazioak; *pres-ins*, irizpideak oraintxe betetzen ez dituztenak baina 1997rako ia ziur prest izanen direnak; eta *outs*, kanpoan geratuko direnak. ■

Mundu mailan, markoa da egungo txanpon indartsuena, dolarrarekin batera. Orduan, euroa markoa baino ahulagoa izanen da nahitaez

